

ERASOTZAILEA OTE DA? Adierazleak

Adierazle hauei begiratuta, familiek pentsatu ahal izango dute euren semea edo alaba erasotzailea den edo litzatekeen eskola-jazarpeneko kasu batean. Helburua ez da egoeraren diagnostikoa egitea, hipotesi bat egitea baizik.

Garrantzitsua da kontuan hartzea edozein pertsona erasotzaile gisa portatu daitekeela, hau da, gure semeak edo alabak portaera hori izan dezakeela. Oso mingarria da jakitea gure seme-alabek indarkeriaz jokatzeko dutela, baina hori ezin da atzikia izan deus ez egiteko edo ikastetxeak deus ez egiteko. Gure seme-alabek, besteen seme-alabek bezala, gure laguntza behar dute portaera onartezinak zuzentzeko. Nahiz eta mingarria izan, gure ekintzak sendoa eta argia izan behar du, baina maitasuna inoiz zalantzan jarri gabe.

Zenbait adierazle:

- Bere portaeraz gogoeta egin dezatela eskatzen zaienean beste pertsona batzuen tokian jartzeko zailtasunak dituzte.
 - Nire semeak edo alabak jokoren batean parte hartzen duenean, maiz jokoa gaizki amaitzen da.
 - Nire semeak edo alabak maiz haserratu eta negar egiten du arrazoi txikiengatik.
 - Beti nahi du azken hitza berea izatea.
 - Bere anai-arrebekin etengabe nagusikeriaz portatzen da. "Menderatzailea".
 - Bere ikaskideenganako gogorik eza duela esaten du (nerabeek eta aurre-nerabeek esan ohi dute: "ume hutsak dira eta").
 - Bera inplikaturik dagoen borrokez sarri mintzatzen da.
 - Eskolako lanei dagokienez, desordena eta gogorik eza.
 - Irainak eta gaitzespenak sarri erabiltzen ditu.
 - Haserraldi biziak izaten ditu, gauzak hautsi eta guzti.
 - Frustrazioarekiko tolerantzia gutxi.
 - Errebeldea. Arauak betetzeko arazoak ditu.
 - Zailtasunak ditu bere ekintzen ardura hartzeko eta barkamena eskatzeko.
 - Bere lagunei trufa egiteko eta umiliatzeko joera.
 - Gutxiespen tonuarekin mintzatzen da ikaskideren batez.
 - Arrazoizko zalantzak ditugu bere lagun-taldeaz.
 - Indarkeriazko ekintzez harropuztu egiten da.
- ✓ *Batzuetan adierazle horietako batere ez da agertzen eta jazarpena portaera eredugarrien gibelean izkutatzen da.*